# I DIPUTACION FORAL DE ALAVA I

# ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DISPOSICIONES Y RESOLUCIONES ADMINISTRATIVAS

*- Decretos Forales del Consejo de Diputados*

**1.458**

**DECRETO FORAL 10/2000, del Consejo de Diputados de 29 de febrero, que desarrolla la Norma Foral 31/1998, de 23 de noviembre, sobre Tributación Local de los Operadores de Telecomunicaciones.**

La Norma Foral 31/1998, de 23 de noviembre, regula la Tributación Local de los Operadores de Telecomunicaciones. Esta Norma Foral prevé que, salvo en el caso del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, los operadores de telecomunicaciones sustituyan la exacción de los restantes tributos y precios públicos de carácter local por una compensación de periodicidad anual. Esta compensación consistirá en un 2% de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan en cada término municipal. Además, en esta Norma Foral, en el apartado Uno de su Disposición Final, se autoriza a la Diputación Foral para regular las disposiciones necesarias para su desarrollo.

Mediante el presente Decreto Foral se procede a desarrollar la referida Norma Foral 31/1998, de 23 de noviembre.

Este Decreto Foral dispone de tres artículos. El primero de ellos se refiere, con carácter general, al régimen especial de tributación de los operadores de telecomunicaciones. El artículo segundo precisa el contenido de la base sobre la que se giran los porcentajes que determinan la compensación en metálico a percibir por la Diputación Foral y los Ayuntamientos de Alava. El artículo tercero regula el mecanismo de hacer efectiva, por parte de los operadores de telecomunicaciones, la citada compensación.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

**Artículo 1.-**

1. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 de la Norma Foral 31/1998, de 23 de noviembre, sobre la Tributación Local de los Operadores de Telecomunicaciones, los operadores de telecomunicaciones sujetos al régimen especial previsto en la mencionada Norma Foral satisfarán a cada Ayuntamiento y a la Diputación Foral de Alava una compensación en metálico, con periodicidad anual, que consistirá en un 1,9% de los ingresos brutos procedentes de la facturación que obtengan dichos operadores en cada término municipal y un 0,1% de los que obtengan en el Territorio Histórico de Alava, respectivamente.

**2.** Se entenderán obtenidos en cada término municipal y en el Territorio Histórico de Alava los ingresos que tengan su origen en cualquiera de los servicios prestados a los abonados o usuarios de cada uno de los municipios de dicho Territorio Histórico, con independencia del lugar desde el cuál se facturen. A los efectos citados, en los servicios a cobro revertido, circuitos alquilados y servicios similares, el lugar de obtención de los ingresos será el de ubicación del terminal al que se realiza la correspondiente facturación.

Los ingresos correspondientes a servicios en que no pueda determinarse de forma directa el término municipal en el que se han obtenido, se distribuirán en la misma proporción que el resto de los ingresos brutos obtenidos.

**Artículo 2.-**

**1.** Tendrán la consideración de ingresos brutos procedentes de la facturación en cada municipio o en el Territorio Histórico de Alava, los procedentes de servicios de telecomunicación directamente prestados por los operadores sujetos al régimen especial establecido en la Norma Foral 31/1998, de 23 de

## XEDAPENAK ETA ADMINISTRAZIO EBAZPENAK

*- Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

**1.458**

**10/2000 FORU DEKRETUA, otsailaren 29ko Diputatu Kontseiluarena. Honen bidez, Telekomunikazioetako Operatzaileen Toki Zerga-Ordainketaren Foru Araua -azaroaren 23ko 31/1998 Foru Araua- garatzen da.**

Azaroaren 23ko 31/1998 Foru Arauak Telekomunikazioetako Operatzaileen Toki Zerga-Ordainketa arautzen du. Foru Arau honek honako hau aurreikusten du: Ondasun Higiezien gaineko Zergaren kasuan izan ezik, Telekomunikazioetako Operatzaileek tokian tokiko bestelako zerga eta prezio publikoak urtero konpentsazio baten bidez ordaindu behar dituztela. Konpentsazio hori honenbestekoa izango da: udalerri bakoitzean urtean fakturatzen duten diru sarrera guztien %2a. Eta gainera, Foru Arau honetan bertan, Azken Xedapenean, lehen atalean, Foru Aldundiari behar diren xedapenak ebazteko baimena ematen zaio Foru Arau hori garatu ahal izateko.

Foru Dekretu honen bidez, aipatutako azaroaren 23ko 31/1998 Foru Araua garatuko da.

Foru Arau honek hiru artikulu ditu. Lehen artikuluan, telekomunikaioetako operatzaileen toki zerga-ordainketaren erregimen berezia jorratzen da, orokorrean. Bigarren artikuluan, Arabako Foru Aldundiak eta Udalek dirutan jaso beharreko konpentsazio-portzentaiak zehazten dira. Hirugarren artikuluan, telekomunikazioetako operatzaileek konpentsazio hori gauzatzeko ezarriko diren mekanismoak arautzen dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholkularitza Batzordeak igorritako txostena ikusita.

Ogasun, Finantza eta Aurrrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta, gaurko egunez egindako bilkuran, aldez aurretik Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren, hause,

ERABAKI DUT:

**1. artikulua.-**

1. Telekomunikazioetako operatzaileek, 31/1998 Foru Araupean dauden operatzaileek, Arabako Udal bakoitzari eta Foru Aldundiari urtero diru-konpentsazio bat ordaindu behar diote, horrela agintzen baitu Telekomunikozioetako Operatzaileen Toki Zerga-Ordainketaren Foru Arauak -azaroaren 23ko 31/1998 Foru Araua-, 4. artikuluan. Konpentsazio hori honako hau izango da: operatzaile horiek udal bakoitzean urteroko fakturazioa dela eta izandako diru sarreren %1,9, eta Arabako Foru Aldundian izandako irabazien %0,1, hurrenez hurren.

**2.** Diru sarrera horiek hemen, Arabako Lurralde Historikoko udalen batean lortutakoak direla pentsatu beharko da, ondorengo kasu hauetan: baldin eta diru sarrera horiek Lurralde Historikoko edozein udaletan abonatuei edo erabiltzaileei eskainitako zerbitzua dela eta lortu badira, fakturazio lekuak direnak direla. Aipatutako ondorioak izateko, itzulitako kobrantzen kasuan, eta alokatutako zirkuituen eta antzeko zerbitzuen kasuan, diru sarrerak non lortu diren jakiteko, fakturazioa bidaltzen den terminala hartuko da diru sarrera horien kokagunetzat.

Baldin eta ezin bada egiaztatu zein herritan lortu diren diru sarrera horiek, zerbitzu horietatik lortutako dirua, beste diru sarrera gordinaren proportzioan banatuko da.

**2. artikulua.-**

**1.** Honako hauek dira Arabako Lurralde Historikoko udal bakoitzean izandako fakturaziotik lortutako diru sarrera gordinak: operatzaileek telekomunikazio zerbitzuak eskaintzeagatik lortutako diru sarrerak, baldin eta operatzaile horiek Telekomunikazioetako Operatzaileen Toki Zerga-Ordainketare Foru

noviembre, sobre la Tributación Local de los Operadores de Telecomunicaciones.

**2.** No tendrán la consideración de ingresos brutos procedentes de la facturación, los obtenidos por los siguientes conceptos:

A) Los ingresos correspondientes a operaciones de tráfico mercantil internacional, considerando como tales a:

a) Los servicios de entrada y tránsito, por iniciarse fuera del territorio del Estado español.

b) Los servicios de salida, en cuanto a los importes satisfechos a otros operadores de telecomunicaciones no residentes en el Estado español, por constituir la contraprestación de su actividad económica realizada íntegramente en el extranjero.

B) Los impuestos indirectos que graven la prestación de servicios de telecomunicación.

C) Los ingresos no derivados de la prestación de servicios de telecomunicación, tales como subvenciones de explotación o de capital, trabajos realizados por los operadores de telecomunicaciones para su inmovilizado, revalorización de activos como consecuencia de regularizaciones o actualizaciones de balances, realizadas al amparo de la correspondiente Norma Foral o Ley, adquisiciones a título lucrativo, indemnizaciones exigidas a terceros por daños y perjuicios, cantidades obtenidas por modificación de sus instalaciones, ingresos financieros, ingresos por publicidad, ingresos obtenidos por diseño, comercialización, instalación y mantenimiento de equipos e infraestructuras para usuarios de sus servicios de telecomunicaciones.

D) Las cantidades procedentes de la enajenación de bienes y derechos que formen parte de su patrimonio.

E) Las cantidades percibidas por la cesión a otros organismos y operadores de telecomunicaciones de derechos de uso sobre instalaciones cuya titularidad ostenten los operadores de telecomunicaciones, así como los derivados del mantenimiento de estas instalaciones.

**3.** Los ingresos a que se refiere el apartado 1 del presente artículo se minorarán exclusivamente en:

A) Los importes correspondientes a descuentos y bonificaciones otorgadas, así como las devoluciones que hayan sido objeto de rectificación.

B) Las partidas correspondientes a importes indebidamente facturados por error que hayan sido objeto de anulación o rectificación.

C) Las partidas incobrables y los saldos de dudoso cobro, que tengan la consideración de gasto deducible de acuerdo con lo dispuesto en la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

D) Las cantidades abonadas por el operador de telecomunicación en concepto de:

- Servicios de telecomunicaciones prestados por otros operadores al operador de telecomunicación y que resulten necesarios para la prestación por éste último de sus propios servicios de telecomunicación o sean facturados conjuntamente con sus propios servicios.

- Servicios de otra naturaleza que sean prestados por terceros a través de las redes y servicios del operador de telecomunicaciones y que sean facturados por éste conjuntamente con sus propios servicios.

**Artículo 3.-**

**1.** El importe de la compensación anual a abonar por los operadores de telecomunicaciones equivaldrá a la cantidad resultante de aplicar los porcentajes contenidos en el artículo 1 del presente Decreto Foral a los ingresos brutos definidos en el artículo 2 del mismo y obtenidos por aquéllos en el período impositivo de que se trate.

**2.** Los operadores de telecomunicaciones deberán presentar declaraciones-liquidaciones trimestrales a cuenta de la declaración-liquidación definitiva del ejercicio.

**3.** El importe de cada liquidación trimestral equivaldrá a la cantidad resultante de aplicar los porcentajes contenidos en el artículo 1 del presente Decreto Foral, al 25% de los ingresos brutos devengados por los operadores de telecomunicaciones en el ejercicio anterior. Las declaraciones-liquidaciones se presentarán e ingresarán en el último mes de cada trimestre natural.

Arauan -azaroaren 23ko 31/1998 Foru Araua- ezarritako erregimenpean badaude.

**2.** Ez dira, bestalde, fakturaziotik lortutako diru sarrera gordintzat hartuko, ondorengo kontzeptuengatik lortutako diru sarrerak:

A) Nazioarteko merkataritza trafikoa dela eta lortutako diru sarrerak. Hona hemen zein diren trafiko eragiketa horiek:

a) Iragaitzako eta sarrerako zerbitzuak, Espainiatik kanpo hasten direlako.

b) Irteerako zerbitzuak, Espainian bizi ez diren telekomunikazio-operatzaieleei ordaindutako diru sarrerak direnean, izan ere, diru sarrera horiek atzerrian osorik egindako lanaren kontraprestazioak baitira.

B) Zeharkako zergak, telekomunikazio zerbitzuaren eskaintza kargatzen duten zeharkako zergak.

C) Edozein diru sarrera, baldin eta ez bada telekomunikazio zerbitzua eskaintzeagatik lortu, eta besteak beste, honako hauek: ustiapen edo kapital-dirulaguntzak, telekomunikazioko operatzaileek balantzeak eguneratzeko edo erregularizazioa gauzatzeko egiten dituzten ibilgetu eragiketak eta aktiboen balioa handitzeak, beti ere, dagokion Foru Arauak edo Legeak dioena errespetatuz, irabazteko asmoarekin erositako tituluak, hirugarren bati eskatutako kalteordainak, instalazioak aldatzeagatik lortutako diru kopurua, finantzako diru sarrerak, publizitatearengatik, diseinuarengatik, komertzializazioarengatik eta telekomunikazioa zerbitzua erabiltzaileei emateko ekipoak eta azpiegiturak instalatu eta mantentzeagatik lortutako diru sarrerak.

D) Norbere ondareko ondasunak eta eskubideak besterentzea dela eta lortutako diru kopuruak,

E) Telekomunikazioko operatzaileen izenean dauden instalazio-eskubideak eta instalazio-mantenimendua beste erakunde eta telekomunikazioko operatzaile batzuei uzteagatik lortutako diru kopurua.

**3.**Artikulu honetako 1. atalean aipatzen diren diru sarrera haue murriztuko dira:

A) Izandako deskontu eta hobariei dagozkien diru sarrerak, eta zuzenketaren ondorioz itzulitako dirua.

B) Konturatu gabe, behar ez bezala fakturatu diren diru-kopuruei dagozkien partidak, baldin eta, aldez aurretik, baliorik gabe utzi badira edo akatsa zuzendu bada.

C) Kobratu ezin diren partidak eta kobragaitzak diren saldoak, baldin eta, Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen araudiaren arabera kenkaria duten gastuak badira.

D) Telekomunikazioetako operatzaileak ondorengo kontzeptu hauengatik ordaindutako diru kopuruak:

- Telekomunikazioetako beste operatzaile batzuek eskainitako telekomunikazio zerbitzuak, baldin eta, zerbitzu horiek nahitaez eurek, eta ez beste inork, eskaini beharrekoak badira, edo bere zerbitzuekin batera fakturatu izan badira.

- Hirugarren batzuek telekomunikazioko operatzaileen sare eta zerbitzuen bidez eskainitako bestelako zerbitzuak, baldin eta hirugarren horrek bere zerbitzuekin batera fakturatzen baditu.

**3. artikulua.-**

**1.** Telekomunikazioko operatzaileek ordaindu beharreko urteko konpentsazioa honela kalkulatuko da: aipatutako operatzaileek dagokion zergaldian izandako diru sarrera gordinei (Foru Dekretu honen 2. artikuluan definitutako diru sarrerak) Foru Dekretu honetako 2. artikuluan ezarritako portzentaiak aplikatuko zaizkie.

**2.** Telekomunikazioko operatzaileek hiruhilabetero aurkeztu beharko dute euren kitapen-aitorpena, urte osoko kitapen-aitorpenaren kontura.

**3.** Hiruhileko kitapena kalkulatzeko honelako formula erabiliko da: telekomunikazioko operatzaileek aurreko ekitaldian izandako diru sarreren %25ari Foru Dekretu honetan, 1. artikuluan ezarritako portzentaiak aplikatuko zaizkio. Kitapen-aitorpenak hiruhilebete amaieran, hau da, hiruhilabeteko azken hilabetean aurkeztuko dira.

En aquellos casos en que el importe de cada liquidación trimestral no pudiera determinarse conforme a lo previsto en el párrafo anterior, por no haberse desarrollado la actividad durante todo el año natural anterior, así como en el caso de inicio de actividad, el importe de cada liquidación trimestral se obtendrá a partir de una estimación propuesta por el operador.

**4**. La declaración-liquidación definitiva se presentará en el primer trimestre siguiente al año a que se refiera. El importe de la misma se determinará mediante la aplicación de los porcentajes contenidos en el artículo 1 del presente Decreto Foral a la cuantía total de los ingresos brutos de facturación devengados por los operadores de telecomunicaciones durante dicho año, ingresándose, en el momento de presentación de la declaración-liquidación definitiva, la diferencia entre dicho importe y el de los pagos a cuenta del mismo anteriormente efectuados.

Si de la liquidación definitiva resultara que el operador ha ingresado a cuenta en un municipio o en la Diputación Foral de Alava una cantidad superior a la que corresponda por la liquidación definitiva, dicho operador compensará el exceso con los ingresos a efectuar en las siguientes declaraciones-liquidaciones trimestrales.

**5.** Las declaraciones-liquidaciones trimestrales y la declaración-liquidación definitiva se presentarán ante la Diputación Foral de Alava, en los modelos que a tal efecto apruebe el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, incluyendo entre otra información, el importe global de la deuda. Además, incluirán detalle de la facturación y cálculo de participación por cada municipio y por la Diputación Foral de Alava. En los casos en que así lo autorice el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, la presentación de las declaraciones-liquidaciones podrá hacerse mediante soporte magnético o por medios telemáticos.

**6**. La Diputación Foral procederá a hacer efectiva la compensación a cuenta y, en su caso, la definitiva a cada municipio del Territorio Histórico de Alava. Este ingreso se efectuará dentro de los dos meses siguientes a la finalización del plazo de presentación e ingreso de las correspondientes declaraciones-liquidaciones que deben presentar los operadores de telecomunicaciones.

**Disposición Adicional**.- La gestión, recaudación, comprobación e inspección de cuantos elementos se regulan en este Decreto Foral se llevarán a cabo por la Diputación Foral de Alava.

**Disposición Transitoria**.- De la declaración-liquidación correspondiente a los ingresos brutos de facturación devengados con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto Foral se deducirán las deudas tributarias a que se refiere la Disposición Transitoria de la Norma Foral 31/1998, de 23 de noviembre, sobre la Tributación Local de los Operadores de Telecomunicaciones. Esta declaración-liquidación se ajustará al modelo que apruebe el Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos y se presentará junto con la declaración-liquidación correspondiente al trimestre natural a aquél en que entre en vigor el presente Decreto Foral.

**Disposición Derogatoria**.- Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en el presente Decreto Foral. En particular queda derogado el Decreto Foral 267/1989, de 14 de febrero, por el que se desarrolla la Norma Foral 17/1987, de 30 de octubre, sobre tributación de Telefónica de España, S.A. en el Territorio Histórico de Alava.

**Disposición Final**.-

**Primera**.- Se autoriza al Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo del presente Decreto Foral.

**Segunda**.- El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava.

Vitoria-Gasteiz, 29 de febrero de 2000.— El Diputado General, RAMON RABANERA RIVACOBA.— El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

Baldin eta hiruhilabeteko kitapen-zenbatekoa ezin bada zehaztu, aurreko paragrafoan aurreikusi bezala, jarduera hori aurreko urte osoan zehar burutu ez delako, edo jarduerari hasiera eman zaiolako, hiruhilabeteko kitapen-aitorpenaren zenbatekoa kalkulatzeko operatzaileak berak kalkulatutako eta proposatutako zenbatekoa hartuko da ontzat.

**4.** Behin betiko kitapen-aitorpena hurrengo urtearen lehen hiruhilabetekoan aurkeztuko da. Zenbatekoa kalkulatzeko honako formula erabiliko da: telekomunikazioko operatzaileek urte horretan izandako fakturazioko diru sarrera gordinei Foru Dekretu honetako 1. artikuluan ezarritako portzentaiak aplikatuko zaizkie, eta hiruhilero behin betiko edo azken kitapen-aitorpenaren kontura ordaindutako diru kopuruak deskontatuko dira azken aitorpen horretan, eta zor guztia kitatu.

Baldin eta, behin betiko kitapena egin ondoren, operatzaileak Arabako udalen batean edo Foru Aldundian behin betiko kitapen-aitorpena egiterakoan dagokion diru-kopurua baino gehiago ordaindu badu, operatzaile horrek gehiegi ordaindutako dirua hurrengo hiruhilabeteko kitapen-aitorpena egiterakoan konpentsa dezake.

**5.** Hiruhilabeteko eta behin betiko kitapen-aitorpenak Arabako Foru Aldundian aurkeztuko dira, baina Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartutako ereduak erabili beharko dira horretarako, eta, beste informazioez gain, zor osoaren zenbatekoa adierazi beharko da bertan. Eta gainera, Arabako udal bakoitzak eta Foru Aldundiak izandako partaidetza-kalkulua zehatz-mehatz adierazi beharko da. Kitapen-aitorpena euskarri magnetikoan edo telematikoetan aurkez daiteke, baldin eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak horrela baimentzen badu.

**6.** Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko udal bakoitzaren kontuan sartuko du kontura egindako konpentsazioari eta behin betiko konpentsazioari dagokion diru kopurua. Diru sarrera hori telekomunikazioko operatzaileek aurkeztu beharreko kitapen-aitorpena aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bi hilabetetan burutuko da.

**Xedapen gehigarria**.- Arabako Foru Aldundiari dagokio Foru Dekretu honetan arautzen diren elementuak kudeatzea, dirubilketa burutzea, konprobatzea eta ikuskatzea.

**Xedapen iragankorra**.- Foru Dekretu hau indarrean sartu baino lehenagoko fakturazioko diru sarreren kitapen-aitorpenen kasuan, Telekomunikazioetako Operatzaileen Toki Zerga-Ordainketaren Foru Arauaren -azaroaren 23ko 31/1998 Foru Arauaren xedapen iragankorrean aipatzen diren zerga zorrak kenduko dira. Kitapen-aitorpen hau Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartutako eredura egokituko da, eta Foru Dekretu hau indarrean sartuko den hiruhilabete horretako kitapen-aitorpenarekin batera aurkeztuko da.

**Xedapen indargabetzailea**.- Indargabeturik gelditzen dira Foru Dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapenak, eta batez ere, honako hau: otsailaren 14ko 267/1989 Foru Dekretua. Foru Dekretu horren bidez, Espainiako Telefónica, S. A. enpresak Arabako Lurralde Historikoan ordaindu beharreko zergak arautzen dituen Foru Araua -urriaren 30eko 17/1987 Foru Araua- garatzen du.

**Azken xedapena**.-

**Lehena**.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saielko foru diputatuari, Foru Dekretu hau garatzeko behar adina xedapen emateko baimena ematen zaio.

**Bigarrena**.- Foru Dekretu hau, Araba Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria/Gasteiz, 2000ko otsailaren 29a.— Diputatu Nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.— Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.